

# Diskoak

IKER BARANDIARAN

## Kantak barru-barrukoak direnean, beti heltzen dira



**Amaraunak.**  
Xarma.  
Autoekoizpena.  
Iraupena: 43'57".  
10 euro.

BEIZAMA, Ondarroa, Berriz eta Donostiako kideak dituen talde hau luzaroan egindako lanaren fruitua jasotzen ari da. Laz lan hau kaleratu zuten eta zuzenekoek emandako izen onak eta irabazi berri duten Danbaka musika lehiaketak lagunduta, kontzertuak eman eta eman dabilta aspaldi honetan. Igartzen da taldekideak ez direla hasiberriak; ezin ulertu, bestela, agertoki gainean erakusten dituzten intentsitatea eta trebezia. Ez hori bakarrik, euskaraz abestutako

hamabi kantetan gai dira Kuraiaren urgentzia daukan rock gitarreroa, metalaren hondeamakina eta post-hardcorearen intentsitatearekin jolasteko; eta horri, gainera, bi ahotsetara abestutako, xuxurlatutako edo oihukatutako melodiak zein erritmo desberdinak gehitze-ko. Hitzak sentikorrek, borrokalariak eta sinesgarriak dira, barru-barrukoak.

[www.myspace.com/xarmamusika](http://www.myspace.com/xarmamusika)

Itsaso Gutierrez - Xarma

## «Sinisten dugunagatik borrokatzen askeagoak garela iruditzen zait»

“Uko egin gabe bizitzaren xarma sentitzeari”. Zein da zuentzat bizitzaren xarma?

Bizitzaren xarma bizirik gaudela sentitzea da. Eguneko gauza txiki-kin gozatzen ikastea, gure akatsetatik ikasten aurrera egitea, gure buruarengan sinista... Bakoitzak bere burua aztertu, ulertu eta sentitzeko beldurrez bizi gara eta horrek milaka ate ixten digu. Nire ustez, jarreran dago sekretu bakarra. Zoriak gure alde egiten ez duenean ere zorionekoak gara, bizirik gaudelako. Zertarako horri uko egin?

Disko honek asko dauka zulotik irten eta gogor borrokatzetik...

Bai. Haserre gaude. Euskal Herrian justiziaren gidaritzapean gertatzen diren injustiziek haserre. Eta musika ideiak kaleratzeko baliabidea eta haserre agertzeko errekurso ezin hobea

dugulako, egiten ditugu kantak halakoak.

“Ametsak gorde nahi ditugu poltsiko apurtuetan, alferrikako lana dela dirudien arren, ahalegin hutsak ematen duen indarra sentitzearren”. Borroka egite hutsa bada bizirik zauden seinale?

Bai. Sinisten dugunagatik borrokatzen askeagoak garela iruditzen zait. Behintzat libre zaude; libre zure kontzientziarekin, zure buruarekin.

Bakoitzak bere baloreak eta printzipioak eraiki eta defendatzen nahikoa lan dugu. Ez da erraza koherente jokatzera.

Danbaka lehiaketa irabazi berri duzue. Nolako diskoa prestatzeko asmoa duzue?

Kanten zirriborro nahikotxo ditugu jada. Elkarrengandik asko ikasi dugu, eta jakin badakigu zein kantak funtzionatuko duen eta zeinek ez. Ilusio handiarekin gaude eta sormen lanetan buru belarri aritzeko prest. Oraingoan ideiak argiago ditugu. Taldeak berezko nortasuna hartu duela uste dugu. Asmoa da disko hau gogorragoa izatea.

Zuzeneko guztiak azkenean balitz bezala bizi dituzue.

Bai. Musika barneak askatzeko baliabidea dugu, eta lehen akordetik azken erritmoraino biziki sentitzen saiatzen gara. ■

